



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2019/07/16

## **Arkitektura tailer batek Miguel de la Colina, Enkarterriko arkitektura garaikideko funtsezko figurea, emongo dau ezagutzera, zapatu honetan, garagarriaren 20an**

Bizkaiko Batzar Nagusien esku dagoen Enkarterrietako Museoak, aurrera jarraitzen dau Enkarterriko ondarea ezagutuazoteko beharragaz, zapatu honetan, garagarriaren 20an, egingo dan beste kultur jarduera bategaz. Gorka Pérez de la Peña historialariak ‘Arkitektura tailerra: Miguel de la Colina Puyol ingeniaria eta eregite garaikidearen eraketea’ izenekoa zuzenduko dau. Jarduera doakoa da. Beharrezkoa da aurretiaz izena emotea 94 650 44 88 / 94 610 48 15 telefono zenbakietara deituz edo [enkarterrimuseoa@bizkaia.eus](mailto:enkarterrimuseoa@bizkaia.eus) helbidera idatziz.

Tailerrean, De la Colina familiak aurkitutako zenbait plano erakutsiko dira. XVIII. mendera gerozan botikari leinua da, gaur egun be Sopuertako farmaziagaz jarraitzen dauena. Familiak, antxinako farmazia egoan euren jaiotzako etxe handian, hainbat eraikinen planoak eta Miguel de la Colina ingeniari eta farmazialariak (Sopuerta, 1885-1976) horreen inguruan egin ebazan beharren inguruko dokumentazinoa aurkitu dau. Planoen artean Hierro-San Martín Jauregikoa dago.

Ekimen horren bitartez, Enkarterrietako Museoak arkitektura garaikideagaz erlazionautako beste ondare ezezagun bat ezagutuazo gura dau, be arkitektura mota horren egileen artxihoak, hain zuzen. Tailerrean, ingeniariak eta arkitektoek jatorrizko diseinua sortzetik eregite lanak bukatu arte jarraitutako prozesua aztertuko da, XX. gizaldiaren hasieran egin ziran eta gure ondarearen parte diran plano eta proiektu horreek erakutsita.

Tailerra, Enkarterrietako Museoak arkitektura garaikidea aztertzeke eta zabaltzeke aurrera daroan ikerketa prozesuaren barruan dago. Proiektu horren emaitzea, datorren urriaren 6ra arte Enkarterrietako Museoa ikusi ahal izango dan “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketea da, eta baita izenburu bera daukan liburuaren argitalpena be.

Erakusketan batutako estiloak XIX. mendearen bukaeratik XX. mendearen bukaerara eregi ziran, industrializazioaren inguruan. Erakusketea eta liburua, Enkarterritik pasealdi bat emotean ikusi ahal doguzan estilo nagusien inguruan egituratzen dira: eklektismoa, neoeuskalduna, modernismoa, erregionalismoa, art déco, errazionalismoa, gerraosteko errazionalismoa eta estilo nazionala, 50eko hamarkadako modernidadea, funtzionalismoa eta organizismoa. Museoak erakusketarako bisita gidauak eskaintzen ditu asteburuetan; aurretik eguna eta ordua eskatu behar da.

Erakusketa hori osatzeko, Museoak kultur ibilbideak antolatu ditu, lehenengo erakusketea bisitetako eta horren ostean, Enkarterrin dagozan eraikin berezietako batzuk ikusteko. Azkenengo kultur ibilbidea urriaren 6an izango da, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Ondareari buruzko Europar Jardunaldien barruan. “Eliza eta jauregi artean jendea dibertitzen” izenburua daraman jardueran Beciko San Cosme eta Damian eleizea eta Hierro-San Martin jauregia bisitatu dira, Sopuertan dagozan XX. mendearen lehen erdialdeko eraikin bi. Jarduerea doakoa da. Beharrezkoa da aurretiaz izena emotea 94 650 44 88 / 94 610 48 15 telefono zenbakietara deituz edo [enkartermuseoa@bizkaia.eus](mailto:enkartermuseoa@bizkaia.eus) helbidera idatziz.

**ARKITEKTURA TAILERRA: MIGUEL DE LA COLINA PUYOL INGENIARIA  
(SOPUERTA, 1885-1976) ETA EREGITE GARAIKIDEAREN ERAKETEA**

Eguna: **Zapatua, garagarriaren 20a**

Ordua: **12:00-13:30**

Lekua: **Enkarterrietako Museoa (Abellaneda. Sopuerta)**

Jarduerea doakoa da. Beharrezkoa da aurretiaz izena emotea 94 650 44 88 / 94 610 48 15 telefono zenbakietara deituz edo [enkartermuseoa@bizkaia.eus](mailto:enkartermuseoa@bizkaia.eus) helbidera idatziz.

**ERAKUSKETA “ENKARTERRI. 1870-1975. ARKITEKTURA GARAIKIDEAREN  
DISTIRA”**

**Martiaren 8tik Urriaren 6ra arte**

Enkarterrietako Museoa

Abellaneda auzoa, z/g (Sopuerta-Bizkaia) 48869

Tfnoak: 94 650 44 88 / 94 610 48 15

Emaila: [enkartermuseoa@bizkaia.eus](mailto:enkartermuseoa@bizkaia.eus)

Ordutegia (Garagarriaren 1etik irailaren 30era)

Martitzenetik zapatara: 10:00-14:00 eta 17:00-19:00

Domeka eta jaiegunetan: 10:00-14:00

Ordutegia (Urriaren 1etik 6ra)

Martitzenetik zapatara: 10:00-14:00 eta 16:00-18:00

Domeka eta jaiegunetan: 10:00-14:00

Astelehenetan itxita

Sarrera doan

[www.enkartermuseoa.eus](http://www.enkartermuseoa.eus)

[www.jjgbizkaia.eus](http://www.jjgbizkaia.eus)



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
16/07/2019

## **Un taller de arquitectura descubre a Miguel de la Colina, figura clave de la arquitectura contemporánea de Las Encartaciones, este sábado día 20**

El Museo de las Encartaciones, perteneciente a las Juntas Generales de Bizkaia, continúa su labor de difusión del patrimonio de Las Encartaciones con una nueva actividad cultural que se celebrará este sábado día 20 de julio. El historiador Gorka Pérez de la Peña dirigirá “Taller de arquitectura: la figura del ingeniero Miguel de la Colina Puyol y la construcción de la edificación contemporánea”. Es una actividad gratuita, pero es necesaria la inscripción previa en los teléfonos 94 650 44 88 y 94 610 48 15 o a través del correo electrónico [enkartermuseoa@bizkaia.eus](mailto:enkartermuseoa@bizkaia.eus).

En el taller se difundirán unos planos conservados por la familia De la Colina, una estirpe de boticarios que se remonta al siglo XVIII y que continúa hoy día regentando la farmacia de Sopuerta. La familia ha encontrado en el caserón natal, sede de la antigua farmacia, los planos de diversos edificios y de documentación relacionada con ellos realizados por Miguel de la Colina, ingeniero y farmacéutico (Sopuerta, 1885-1976). Entre los planos, está el del Palacio Hierro-San Martín.

Con esta iniciativa el Museo de Las Encartaciones quiere dar a conocer otro patrimonio inédito relacionado con la arquitectura contemporánea, el de los archivos de los artífices de esta arquitectura. En el taller se trabajará sobre el proceso que ingenieros y arquitectos llevaban a cabo desde el diseño original hasta la finalización de la construcción, sacando a la luz estos planos y proyectos realizados a principios del siglo XX y que son parte de nuestro patrimonio.

El taller se encuadra dentro de todo el proceso de investigación llevado a cabo por el Museo de Las Encartaciones para el estudio y difusión de la arquitectura contemporánea. Este proyecto ha dado como resultado la exposición que se puede ver hasta el próximo 6 de octubre en el Museo de Las Encartaciones: “Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”, así como en la publicación de un libro del mismo nombre.

Los edificios reunidos en esta muestra fueron construidos entre finales del siglo XIX y finales del siglo XX, al albur de la industrialización. Tanto la exposición como el libro se estructuran en torno a los grandes estilos que podemos contemplar dando un paseo por Las Encartaciones: eclecticismo, nevasco, modernismo, regionalismo, art déco, racionalismo, racionalismo de posguerra y estilo nacional, modernidad de los 50, funcionalismo y organicismo. El Museo ofrece visitas guiadas a la exposición los fines de semana, concertando previamente día y hora con el museo.

Para completar esta muestra, el Museo ha organizado itinerarios culturales para visitar primero la exposición y después recorrer algunos de los edificios emblemáticos que atesoran Las Encartaciones. El último de estos itinerarios culturales se realizará el domingo 6 de octubre, dentro de las Jornadas Europeas de Patrimonio organizadas por la Diputación Foral de Bizkaia. El título del itinerario cultural es “Entre iglesias y palacios la gente se divierte”; se visitarán la exposición y después la iglesia Santos Cosme y San Damián (Beci. Sopuerta) y el Palacio Hierro-San Martín (Sopuerta). Es una actividad gratuita pero es necesaria la inscripción previa en los teléfonos 94 650 44 88 y 94 610 48 15 o a través del correo electrónico [enkarerrimuseoa@bizkaia.eus](mailto:enkarerrimuseoa@bizkaia.eus).

**TALLER DE ARQUITECTURA: LA FIGURA DEL INGENIERO MIGUEL DE LA COLINA PUYOL (SOPUERTA, 1885-1976) Y LA CONSTRUCCIÓN DE LA EDIFICACIÓN CONTEMPORÁNEA**

Día: **Sábado, 20 de julio de 2019**

Horario: **12:00-13:30**

Lugar: **Museo de Las Encartaciones (Abellaneda. Sopuerta)**

Actividad gratuita pero es necesaria la inscripción previa en los teléfonos 94 650 44 88 y 94 610 48 15 o a través del correo electrónico [enkarerrimuseoa@bizkaia.eus](mailto:enkarerrimuseoa@bizkaia.eus).

**EXPOSICIÓN “ENCARTACIONES. 1870-1975. EL ESPLENDOR DE LA ARQUITECTURA CONTEMPORÁNEA”**

**Del 8 de marzo al 6 de octubre**

Museo de las Encartaciones

Barrio Abellaneda, s/n. 48869 Sopuerta (Bizkaia)

Tfno: 94 650 44 88 / 94 610 48 15

Email: [enkarerrimuseoa@bizkaia.eus](mailto:enkarerrimuseoa@bizkaia.eus)

Horario (Del 1 de julio al 30 de septiembre)

De martes a sábado: 10:00-14:00 y 17:00-19:00. Domingos y festivos: 10:00-14:00

Horario (Del 1 al 6 de octubre)

De martes a sábado: 10:00-14:00 y 16:00-18:00 Domingos y festivos: 10:00-14:00

Lunes cerrado

Entrada gratuita

[www.enkarerrimuseoa.eus](http://www.enkarerrimuseoa.eus)

[www.jjgbizkaia.eus](http://www.jjgbizkaia.eus)